



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-02-20**

VIURTEA 1.366.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MARTXELO OTAMENDI 'EGUNKARIA'-REN ZUZENDARIA

«Gure delitu bakarra euskarazko egunkari bat argitaratzea izan zen»

TOLOSALDEA Gaur 'Egunkaria' itxi zutela 5 urte betetzen dira; horren harira elkarretaratzeak izango dira eskualdean

BATZORDEAK Eskualdean sortu dituzte elkarretaratzeak prestatzeko, besteak beste; «harrera ona izan dute» 4



Ainhoa Artola eta Maialen Mujika, kantu afariaren kartela eskuetan dutela. I. GARCIA

KILOMETROEN ALDE KANTU AFARIA

ANOETA Anoetako batzordekoek antolatu dute ekitaldia larunbat honetarako, «anoetarren parte-hartzea eskertzeko asmoz» 5

II. Mikro-Ipuin Lehiaketako sariak banatuko dituzte, Uriberen bisitarekin

LEITZA Unai Onsalo aresoarrak irabazi du saria, 359 lan aurkeztu ziren orotara lehiaketara 7

Regina Otaola: «400 firmen bilketa porrot handia izan da»

LIZARTZA «Dimisiorik ez dugula aurkeztuko» azaldu du Lizartzako alkateak 6

Jesusen Bihotza
ikastolaren
Kultur Asteak
aurrera
jarraitzen du

VILLABONA Atzokoan tabako kontsumoa izan zuten hizpide ikastolan 5

Larunbatean
bertso afaria
Peñagarikano
eta Zubeldiaren
eskutik

ALBIZTUR Sarrerak salgai daude udaletxean eta herriko tabernatan 3

Estreinakoz, Ahoz aho nazioarteko jaialdia izango da eskualdean

Kultura » Hiru egunetan zehar, artista ezberdinen emanaldiak ikusi ahal izango dira sei eskenatoki ezberdinetan.

ESTI EZEIZA

Asvinenea Arte Eszenikoen Sustapen eta Laborategiak antolatuta Ahoz aho nazioarteko jaialdia ospatuko da datozen egunetan Tolosan. Hilaren 22, 23 eta 24an haurrentzako nahiz helduentzako saioak izango dira ikusgai sei eskenatoki ezberdinetan. Saio guztiak doakoak izango dira, eta edozein joan ahal izango da ikustera.

Euskal Herriko, Valentziako (Herrialde Katalanak), Uruguayko, Herbeheretako, Argeliako, Congoko, Italiako eta Venezuelako artistak etorriko dira besteak beste, beraien emanaldiak eskaintzera.

Jaialdian parte hartuko duten protagonista guztiak Europan bizi badira ere, munduko herrialde oso ezberdinetatik etorritakoak dira. Hala, hauek, mundua ikusteko eta ulertzeko modu ezberdinak era-

kutsi nahiko dituzte. Eta aldi berean, frogatu, «Europa zaharrak nola egin dituen bere, beste herrialdeetako hainbat eta hainbat gonbidatu».

Ekimen hau aurrera eramaten lagundu die Asvineneakoei Tolosako Udalak, Arditaxa elkarteak, Tolosako zenbait auzo-elkartek, Bonbereneak eta Zumetak.

Ahozkotasanaren nazioarteko jaialdia La caratulak sustatu zuen eta duela 18 urte hasi ziren aurrera eramaten. Honenbestez, duela hilairetaz guti, Asvineneakoei haurremantetan jarri ziren, eta Tolosan ere egitea erabaki zuten. Joan den astean Elchen (Herrialde Katalanak) gauzatu zen jaialdia, eta bertan izan zen May Gorostiaga Asvineneako kidea.

Eskualdeko jaialdian, areto eta ordu ezberdinetan eskainiko dituzte emanaldiak. Izan ere, antolatzailerak zirkuitu txiki bat osatu nahi izan dute, ikusleek nahi dituzten saio guztiak ikusi ahal izan dituzaten, batetik bestera joanaz, eta denborarekin arazorik izan gabe. Aurtengoa lehen edizioa izango da, baina aurrera begira gehiago egin nahi dituzte.



Ana Esclapez eta El Sabadero bikotea izango dira ikusgai Ahoz aho jaialdiaren baitan. HITZA



» EGITARAUA

Otsailak 22, ostirala

■ **Fronton kafetegia.** 22:30ean, artisten aurkezpen ekitaldia ospatuko da. Bertan izango dira denak.

Otsailak 23, larunbata

■ **Bonberenea.** Haurrentzako saioa izango da 12:00etan. Emanaldia euskaraz izango da, eta antzezle lanetan Josemari Carrere ariko da.

■ **Kultur Etxea.** Helduentzako saioa izango da 16:00etan. Emanaldia euskaraz izango da, eta antzezle lanetan Josemari Carrere ariko da.

■ **Sanblaspiiko auzo-elkartea.** Helduentzako saioa izango da 17:00etan. Antzezle lanetan Ana Esclapez (Valentzia, Herrialde Katalanak) eta El Sabalero (Uruguay, Frantzia) ariko dira.

■ **San Esteban auzo-elkartea.**

Helduentzako saioa izango da 18:30ean. Antzezle lanetan Fabiana Costa (Italia, Venezuela) eta Beltrand N'Zoutani (Kongo, Frantzia) ariko dira.

■ **Amaroz auzo-elkartea.** Helduentzako saioa izango da 20:00etan. Antzezle lanetan Michele Nguyen (Argelia, Vietnam, Belgika) eta Valenti Piñot (Valentzia, Herrialde Katalanak) ariko dira.

■ **Asvinenea.** Ahozkotasan gala izango da 23:00etan. Bertan, artista guztiak bilduko dira.

Otsailak 24, igandea

■ **Bonberenea.** Haurrentzako saioa izango da 12:00etan. Emanaldia euskaraz izango da, eta antzezle lanetan Kontu-kantoikoak ariko dira.

■ **Kultur Etxea.** Helduentzako

saioa izango da 16:00etan. Emanaldia euskaraz izango da, eta antzezle lanetan Kontu-kantoikoak ariko dira.

■ **Sanblaspiiko auzo-elkartea.** Helduentzako saioa izango da 17:00etan. Antzezle lanetan Fabiana Costa (Italia, Venezuela) eta Beltrand N'Zoutani (Kongo, Frantzia) ariko dira.

■ **San Esteban auzo-elkartea.** Helduentzako saioa izango da 18:30ean. Antzezle lanetan Michele Nguyen (Argelia, Vietnam, Belgika) eta Valenti Piñot (Valentzia, Herrialde Katalanak) ariko dira.

■ **Amaroz auzo-elkartea.** Helduentzako saioa izango da 20:00etan. Antzezle lanetan Ana Esclapez (Valentzia, Herrialde Katalanak) eta El Sabalero (Uruguay, Frantzia) ariko dira.

«Komunikatzeko hitza erabiltzen duten artisten lana erakutsi nahi dugu jaialdiarekin»

MAY GOROSTIAGA » Asvineneako kidea

Kultura » Asvineneako kide da tolosarra, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu estreinakoz ospatuko den jaialdira.

E. EZEIZA

Emozio, goxotasuna eta beste hainbat sentsazio ateratzeko aukera eskaintzen dute May Gorostiagak (Tolosa, 1971) eta bere kideek asteburu honetan. Ahoz aho nazioarteko jaialdiaren inguruan

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Anoeta. Itzuli tabernak neska euskalduna behar du. Sartzeko edo lau orduetarako. Interesarteko deitu 635 74 52 91era edo 943 69 43 13ra.



HITZA

mintzatu da tolosarra, bera baita ekimenaren antolatzaileetako bat. **Zen da Ahoz ahoren helburua?** Komunikatzeko hitza erabiltzen duten artisten lana erakutsi nahi dugu. Bestalde, pertsonalki, Asvinenearen helburua da jaialdi hau finkatzea. Aurten ongi baldin ba-

doa, eta jendea etortzen bada, datorren urterako zerbait handiago prestatuko genuke.

Emanaldietako batzuk, Tolosako auzoetan izango dira.

Kultur ekintza gehienak Tolosan erdiguenean egingen dira, eta hau irekitzea pentsatu genuen. Hala,

auzoetako elkarteek hortan lagundu digute, eta Bonbereneakoei ere, azkenik, ekimenera batzea erabaki dute, nahiz eta karteletan ez agertu.

Artista guztiak etorkinak dira.

Europan bizi baina kanpotik etorri diren artistak dira, nahiz eta hemen beraien lanarekin jarraitzen duten.

Zuek aukeratu al dituzte parte hartuko duten artistak?

Hori La Caratulak erabakitzen du, eta jada aukeratu zuten. Urterto gai ezberdin bat jorratzen dute, eta aurten Fernando Fernan Gomez omenaldia egin nahi izan diote, narraztaile garrantzitsua izan baita. Bestetik, Europan bizi diren etorkinak aukeratu dituzte.

Binakako saioak dira.

Bi pertsonen artean egingo dute saioa. Hori, beraiantzat nahiko zaila da, bakoitzak bere ikuskizuna baitu berez. Saio bakoitzean bi artista egotea nahi izan dugu, Tolosan ez baita ezagutzen ahozkotat-

suna zer den. Horregatik, aurten gure asmoa erakusketak bat egitea, jendeak ezagutu dezan zein teknika dauden.

Nola azaldu herritarrei, zer ikusiko duten?

Alde batetik, Beltrand N'Zoutani daukagu, hau Kongotik (Afrika) dator eta griot-a da. Antzinako afrikar tribuetako bufoia-edo izandigute, eta Bonbereneakoei ere, azkenik, ekimenera batzea erabaki dute, nahiz eta karteletan ez agertu.

Artista guztiak etorkinak dira.

Europan bizi baina kanpotik etorri diren artistak dira, nahiz eta hemen beraien lanarekin jarraitzen duten.

Zuek aukeratu al dituzte parte hartuko duten artistak?

Hori La Caratulak erabakitzen du, eta jada aukeratu zuten. Urterto gai ezberdin bat jorratzen dute, eta aurten Fernando Fernan Gomez omenaldia egin nahi izan diote, narraztaile garrantzitsua izan baita. Bestetik, Europan bizi diren etorkinak aukeratu dituzte.

Binakako saioak dira.

Bi pertsonen artean egingo dute saioa. Hori, beraiantzat nahiko zaila da, bakoitzak bere ikuskizuna baitu berez. Saio bakoitzean bi artista egotea nahi izan dugu, Tolosan ez baita ezagutzen ahozkotat-

S Soka motzean

«Bezeroari, beti, niri gustatzen zaidana eskaintzen diot»

NIEVES SOROA

Saizar gozotegiko nagusia

ESTI EZEIZA

Saizar gozotegiko nagusia da Nieves Soroa (Lizartza, 1957), eta hamar urtetik gora daramatza lan honetan.

Gozozaleak al dira hemengoak?

Bai, tolosarrak oso gozozaleak dira.

Eta zu?

Bai, ni ere gozozalea naiz, eta gainera ez naiz aspertzen, nahiz eta egun osoan aurrean ikusi.

Egunero jaten al duzu gozoren bat?

Bai, normalean hostorez egindako lazoak egunero jaten ditut.

Gauza goxoak prestatzeko, eta bezeroak gustura izateko zein da sekretua?

Garrantzitsua norberari gustatzea da. Nik beti, niri gustatzen zaizkidan gauzak eskaintzen dizkiet bezeroei.

Egunero erosten edo jaten al ditu jendeak gozoak?

Pastelel dagokionetan eta, gehinetan ospakizun berezietarako erosten dituzte.

Alde handia al dago gozotegiko gozoren eta aurrez prestatutakoen artean?

Zaporeari dagokionean behintzat, handia.

Zein da gozo bat jateko memento onena?

Gozo bat jateko ez dago memento zehatzik, edozein unetan sartzen da ondo.



INIGO TERRADILLOS

Peñagarikano eta Zubeldiarekin bertso afaria, larunbat honetan

Albiztur » Sarrerak salgai daude herriko tabernetan eta udaletxean; bihar izango da hauek erosteko azken eguna.



Peñagarikano bertsoan. HITZA

ESTI EZEIZA

Bertsozaleek hitzordua dute larunbat honetan Albizturten. Jai batzordeak antolatuta Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariak izango dira Santa Marina auzoko Segoretxe-berri jate-txean.

Ekitaldira joan nahi dutenek sarrerak ondorengo lekuetan eskura ditzazkete 27 euro bitartean. Segoretxe-Berrin, Herriko Etxea, Elane eta Ugarte jate-txeetan. Honez gain, Udaletxean ere erosi ahal

izango dira tiketak. Honetarako azken eguna biharkoa izango da.

Ekitaldi hau Gabon egunean herriarrek eskean ateratako diruarekin ordainduko da. Izan ere, han lortutako diru kopuru bat kultur ekintzak bultzatzeko bideratu zen.

Aurkezle lanetan Ander Malbadi ariko da larunbatean. Gainera, bertsolari beraien saioa amaitu ondoren trikitilariak izango dira afalostea alaitzeko. Antolatzaileen esanetan, «herriarguztiaz zabaldua dago ekimena eta bertaritzen direnek ongi pasako dutela ia ziurtatua dago». Albizturko gain, beste herrietakoentzat ere zabaldua dago deialdia.

Bertso afarietan garrantzitsuenak bertsolariak badira ere, afaria bera ere garrantzitsua izaten da. Larunbatean Segoretxe-Berrira bertaritzen direnek ondorengo platerak dastatzeko aukera izango dute. Hasteko era askotako friji-tuak eta entsalada izango dira. Ondoren arkumea edo oilasko errea aukeran. Honekin batera, postrea, kafea, kopa bat eta purua.

digital
h
@

Bihar, osteguna, 12:00etan
INAXIO PERURENA
harri-jasotzailearekin
elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue.



www.tolosaldekohitza.info webgunean

TXOTX

Urbartarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajaerretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@lajaerretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Arandede bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidrerriakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidrerriakelenea.com Astigarraga

Guruteta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergoia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

E Elkarrizketa

MARTXELO OTAMENDI 'Euskaldunon Egunkaria'-ren zuzendaria

«Delitu bakarra eta handiena euskarazko egunkari bat argitaratzea izan zen»

Tolosa » 'Egunkaria' itxi zutela 5 urte beteko dira gaur, eta hori dela eta, elkarretaratzeak egingo dituzte eskualdeko hainbat herritan.

INIGO TERRADILLOS

Gaur beteko dira 5 urte Guardia Zibilak Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Oraindik ere epailearen itxi zutenetik. Oraindik ere epailearen zain daude auzian inputatutako hamabi auzipetuak, eta tartean da Martxelo Otamendi (Tolosa, 1957) *Egunkaria*-ren zuzendaria. Itxiera nola izan zen gogoratu du, eta bost urte hauek nola igaro diren eta etorkizuna nola ikusten duen azaldu. Euskal Herriko hainbat txokotan bezala, eskualdean elkarretaratzeak deitu dituzte *Egunkaria*-ren aurkako polizia operazioa eta auzibidea salatzeke.

Gaurko elkarretaratzeak antolatu dituzte.

2003ko otsailean *Egunkaria* itxi zutenean euskaldunek euren protesta eta haserrea erakutsi zuten, eta baita gureganako elkartasuna eta berotasuna, eta gaur bost urte betetzen direla, egoki ikusi dugu Euskal Herriko plaza eta kaleetan elkarretaratzeak egitea salatzeke egoera. *Egunkaria*-ren itxieraren kontra agertu ziren haiei gogoraz nahi diegu hura ez dagoela konponduta. Gainera, ikusita epaiketa laster izan daitekeela egokia

izan daiteke jendea kontzientziazatzen joateko.

Batzordeak sortzen ari dira eskualdeetan. Zein helbururekin?


Euskal Herriko beste batzordeekin koordinatzea, gaurko elkarretaratzeak antolatzea eta abar. Edonork hartu dezake parte, eta orain arte, Tolosaldekoari dagokionez, harrera ona izan da.

Jasotako babesa espero zenuena izan al da?

Gu oso pozik gaude jasotako babesarekin, eta ziur handiagoa izango dela oraindik. Oso babes handia jaso genuen *Egunkaria* itxi zutenean, ikaragarria izan zen, bai Euskal Herrian, bai eta Euskal Herriatik kanpo ere. Espiritu hori berreskuratatu nahi dugu. Ni ez nintzen izan atxilotuta nengoelako, eta gainera tortura gogorrenak manifestazioaren ostean egin zizkiguten.

Nola gogoratzen duzu itxieraren eguna?

Etxean, ohean nengoen. Guardia Zibilak atea jo zuen, eskumuturrekoak jarri zizkidaten eta itxieraren berri eman zidaten. Orduan, zera pentsatu nuen milaka euskaltzale eta euskaldunen urtetako ametsa eta ahalegina bertan behera geratu zirela bakarren batek Madrilen



EEZEIZA

erabaki zuelako epaitegi batean euskaldun horien gogo hura zorratzea. Orduan, atxiloteta, 5 egun inkomunikatuta, torturak etorri ziren, eta gero jendearen berotasuna eta elkartasuna. Horiek etortzen zaizkit burura. Baina, batik bat, norbaitek erabaki zuela milaka euskaldun, irakurle eta euskaltzaleren errealitate hura hondatzea.

Egunkaria itxeko ze arrazoi eman zituzten?

Epaileak beti bi arrazoi aipatu zituen: bata da *Egunkaria* ETAK finantzatu zuela, eta bestea ondorioz zuzendariak eta arduradunak ere ETAK izendatu zituela. Bost urteko ikerketaren ondoren epaileak ahaztu da ETArekin finantzazioaz nahiz eta hura izan zen itxeko arrazoi nagusietako bat. Baina horiek aitzakiak izan ziren Auzitegi Nagusian Guardia Zibilak agintzen baitu, eta Guardia Zibilak suso bat edo eskarmentu bat eman

» ELKARRETARATZEAK

- **Alegia.** 19:30ean izango da, herriko plazan.
- **Altzo.** 19:30ean izango da herriko plazan.
- **Anoeta-Irura.** 19:30ean aterako dira Anoetako plazatik Irurako plazara iristeko.
- **Berastegi.** 20:00etan, herriko plazan.
- **Ibarra.** 19:30ean, Euskal Herria kalean, herriaren sarreran.
- **Tolosa.** 19:30ean, Triangulo plazan.
- **Villabona.** 19:30ean, Hiru Aldetan.

nahi zien euskaldunei; nolabait, jakinarazi nahi zutena zen ahazteko aldarrikapenekin, erabakitzeke eskubidearekin... Hori izan zen benetako arrazoi, beste guztia aitzakia izan zen, izan ere epaileak ezin izan du frogatu ez ETAK finantziazten zuenik, ez eta ETAK izendatzen zituenik ordezkaririk. Ezin izan du frogatu ez delako egia.

Nolakoak izan dira 5 urte hauek? Txuri-beltzak. Beti izan dugu gaitan epailearen zama. Dena den, aurrera jarraitu dugu euskalgintzan lanean; Ereduzkoa izan zen langileen lana, izan ere, gu atxilotu eta berehala jarri ziren lanean, eta euskarazko egunkari bat egotea bermatu zuten itxieraren hurrengo egunean ere. Gure langileek, euskaltzaleek eta irakurleek esan zioten Auzitegi Nazionalari hura ez zela inor erabakitzeke Euskal Herriak euskarazko egunkari bat izan ala ez. Gero, *Berría* sortu genuen, eta ondoren, zazpi *Hitza*-k ere etorri dira, tokiko telebistak, eta proiektu berriak ditugu etorkizunerako.

Auzipeturik zaudetenon egoera zein da? Zuen burua kartzelan ikusten al duzue?

Batzuk sumario nagusian, eta beste batzuk ekonomikoan daude, eta beste batzuk bietan. 18/98 auziak erakutsi digu epaileek inolako probarik eta lotsarik gabe kondenatu zaitzaketa eta ikide izatea leporatuta, beraz, gure kasuan ere edozer gerta daiteke. Oso arrisku serioa dago kartzelara joateko euskarazko egunkari bat argitaratzea-gatik, zuzentzeagatik nire kasuan, beste batzuen kasuan kontseilaria izateagatik eta abar. Guk, dena den, jarraituko dugu gure errugabetasuna defenditzen, gurea pertsonala, eta kolektiboa, euskalgintzarena, *Egunkaria*-rena... jarraitu egin behar dugu aldarrikatzen. Gure delitu bakarra eta handiena euskarazko egunkari bat argitaratzea izan da, euskaldunon esku *Egunkaria* jartzea, alegia.

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

2003. OTSAILAK 20

“Eskandalagarri eta guztiz onartezin deritzot Aznar jaunaren gobernuak zuen egunkariaren kontra egindako erasoari”

Jean-Pierre Destrade,
Frantziako Alderdi Sozialistako diputatu ohia.



www.egunkaria.info



Ainhoa Artola eta Maialen Mujika, kantu afariaren kartela eskuetan. I. GARCIA

Kilometroak 2008 egitasmoaren baitan kantu afaria antolatu dute

Anoeta » Anoetarren parte-hartzea eskertzeko prestatu dute ekitaldia Anoetako Batzordekoek larunbat honetarako.

IMANOL GARCIA

Kilometroak 2008ren egitasmoaren baitan parte hartzen du Anoetako Batzordeak. Talde honetako kideek Anoetan zerbait egitea prestatu dute. «Ikusten genuen Kilometroak Irurak antolatu arren Anoetaren laguntza ere beharrezkoa dela», azaldu dute batzorde horretako kide diren Ainhoa Artolak eta Maialen Mujikak. «Pentsatu genuen laguntza eskatzeaz aparte, zerbait eskaini behar genuen herriari eta kantu afari bat egitea bururatu zitzaigun», gaineratu dute.

Ikuskizuneko Batzordearekin batera pentsatu zuten kantu afaria egitearen ideia. *Kantuz Kantu Eraikitzen* deitu diote ekimenari, Kilometroen leloa erabiliz. «Afari bat egitea pentsatu genuen. Bertsuak ere eginda zeuden eta Anoetan ez denez behin ere kantu afari bat egin, eta ekitaldi hori egitera animatu ginen», zehaztu dute bi kideek.

Ekerrak herriari

Anoetako frontoian izango da ekitaldia, larunbat honetan, hilak 23. Ateak 20:00etan irekiko dira eta barra bat izango da bertan. 21:00etan hasiko da afaria. Postrearekin batera, Kilometroak 2008ko antolatzaileek eskerrak emango dizkiote Anoetako herria-

ri eta herri horretatik zirkuituaren nondik norakoak ere azalduko dituzte.

Afaria eta gero etorriko da kanturako unea. Antton Iztueta altzotarrak dinamizatuko du. Kantuan aritu ondoren, Unsain anaiek erromeri doinuak jarrituko dituzte.

Afariaren prestaketaz herriko Kuku elkarte arduratuko da eta zerbiztatzeaz Anoetako Ikastolaren Juntakogurasoak arduratuko direla aurreikusten dute. Barraren zerbiztua Gazte Asanbladako kideek eramango dute. Beraz, anoetarrak buru belarri ariko dira prestaketak egiteaz.

Izena emateko azken eguna bihar da eta txartela salgai daude Buztina, Arkupe eta Itzuli tabernetan eta Anoetak eta Irurako Ikastoletan. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek 8 euro. Haurrentzako txartelak bi ikastoletan bakarrik erosi ahal dira. Artolak eta Mujikak animatzen diete herritar guztiei parte hartzera kantu afarian.



Irurako Udala

IRAGARKIA

Arau Subsidiarioetako 25. Gune (Honar pabilioia) xehetasun azterketari behin behineko onespina eman zaio. Hori dela eta, espedientea jendaurrean jarria izan da, 20 eguneko epean. Epe horretan espedientea Udal honetako Idazkaritzan egongo da erakusgai.

Irura, 2008ko urtarrilaren 18a
ALKATEA

Tabako-kontsumoa hizpide II. Kultur Astearen baitan

Villabona » Jesusen Bihotza Ikastolako DBH1eko ikasleek, gurasoek eta irakasleek jaso dute informazioa.

I. GARCIA

Jesusen Bihotza Ikastola II. Kultur Astea burutzen ari da egunotan. Atzokoan, besteak beste, tabako kontsumoari aurre hartzeko hitzaldi-tailerra jaso zuten DBH1eko ikasleek eta gurasoek. Kutzak diruz lagundutako ekimena izan da eta Agipad elkarteak Maria Nebreda psikologoak eman ditu azalpenak. «Helburu nagusia tabako kontsumoaren hasiera gero eta gehiago atzeratzea da», azaldu du Nebredak. Dirudienez, DBH1 eta DBH2 batzuk tabakoa probatzen hasten dira eta horregatik egiten dituzte saioa DBH1eko ikasleei zuzenduta.

Nebredak adierazten duenez, «zenbat eta lehenago hasi droga bat kontsumitzen, droga horren mendeen erortzeko arriskua handiagoa izaten da. Horregatik dagarrantzitsua tabakoaren kontsumoaren hasiera atzeratzea».

Hitzaldi-tailerak hiru esparrutan egiten dituzte: alde batetik ikasleekin bi orduko saioa, gero irakasleekin ikusitakoaren garapen bat egiteko eta gurasoei zuzendutako saioa. «Horrela interbentuzioa osatuko da», zehazten du Nebredak.

Informazioa eman

Saioan batez ere informazioa eskaintzen du Nebredak, tabakoak izan ditzakeen arriskuak azalduz. «Ikasle gehienek bizi dute tabakoa zerbait oso kaltegarri bezala, hiltzen duena eta gainera nazka ematen diena», dio psikologoak. Hori bai, ez dute ikusten tabakoa droga bat denik, «bere izaera legala dela eta. Pentsatzen dute droga biguna izan daitekeela, legala denez, jende ugari kontsumitzen duelako eta bere kalteak ez direlako epe motzera ikusten».

Tabakoaren Legea aldatu denetik, baina, Nebredak dioenez, «na-



Hitzaldi-tailerrean esperimenduak ere egin dituzte, zigarro batek pertsona batean eragiten dituen kalteak ikusteko. I. GARCIA

» EGITARAUA

■ **Hilak 20, gaur.** Maribel San Sebastianek XXI. mendean hezi. Heziketa oinarri garrantzitsua hitzaldi-tailerra emango du, gaztelaraz, Gureako erakusketa aretoan, 15:15etik 17:00etara.

■ **Hilak 21, bihar.** Patxin eta Potxin pailazoak, HH eta LH1eko 1. Ziklokoentzat, Txermingo ganbaran, 15:30ean. *Mali elkartasuna* proiektuaren aurkezpena LH6ko eta DBHko ikasleentzat, Gurea aretoan, 16:00etatik 17:00etara.

■ **Hilak 22, etzi.** Espina bifida eta ONCE elkartekoek *Jar zaitez nire lekuan* hitzaldi-tailerra emango dute LH6ko ikasleei, goizean zehar Zentroan. Maite dugulako antzerki taldeak *Satorrak* antzezlanaren emango dute, 19:00etan, Gurea aretoan eta herri guztiari zabaldu-ta.

■ **Hilak 24, igandea.** Ibilaldi neurtua. 09:30ean ibilbide luzeari hasiera emango zaio eta 11:00etan ibilbide laburrari.

baritu dugu ikasleei atzera egiten diela tabakoak». Beste datu bat, legea ezarri eta gero, kontsumoa jaisten ari dela da. «Normala da jaitziera hori, gero eta leku gutxiago badaude erretzeko. Eskoletan ere ez da baimentzen erretzea».

Ikastolaren Kultur Asteak gaur beste ekitaldi interesgarri bat izango du. Kasu honetan heziketa izango da hizpide eta Maribel San Sebastianek emango du hitzaldi-tailerra gurasoei zuzenduta Gureako erakusketa aretoan.

NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UN. BEATS. TATEA



Irurako Udala

IRAGARKIA

Arau Subsidiarioetako 26. Gune (Euskal Forging, S.A.) xehetasun azterketari behin behineko onespina eman zaio. Hori dela eta, espedientea jendaurrean jarria izan da, 20 eguneko epean. Epe horretan espedientea Udal honetako Idazkaritzan egongo da erakusgai.

Irura, 2008ko urtarrilaren 18a
ALKATEA

L Laburrak

Altuna II.a eta Patxi Zeberio bihar Galarretan

ERREMONTEA Erremonte jaialdia antolatuta duete bihar Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan. Ohi bezala 16:00etan hasiko da lehen norgehiagoka eta guztira lau partida jokatu dituzte. Bigarren-goan Altuna II.ak Lizasorekin batera, Ezkurra eta Etxabe izango dituzte arerio. Hirugarren partidaren berriz, Patxi Zeberio-Badiola bikoteak Urriza-Urrutia izango dituzte aurrean. Bi partidak 40 tantora jokatu dituzte.

LABek manifestazioa egingo du larunbatean

ELKARRETARATZEA LAB sindikatua eskualdeko langileei eta herritarrei deialdia luzatu die larunbaterako. Donostian (Gipuzkoa) Bulebarretik hasita 17:30ean manifestazioa egingo du LABek «Irungo Ogasuneko iruzurra salatu eta errudun guztiak oraindik ez direla ageri» azaltzeko. Mobilizazioaren zergatia azaltzeko garaian, «honelako kasuak berriro gerta ez daitezen bermatzeko bide bakarra horixe dela» azaldu dute.

Argi indar mozketak hilaren 25ean

TOLOSA Tolargik jakinarazi duenez argi mozketak egingo dituzte hilaren 25ean 08:20etik 11:40ra. Tolosako ondorengo helbideetan: Batxiller Zaldibia Ilean eta Gernika 8an. Arrazoiei dagokienez, Tolargik hobekuntza lanak aipatu ditu; «gure bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz, gure instalazioetan hobekuntza eta mantentimendu lanak egiten gabilta, horren ondorioz hurrengo egunotan argindar mozketak egingo ditugu».

Txinatar filma ikusgai bihar Zine-Forumean

TOLOSA Bihar Zine-Forumean *La boda de Tuya*, 'Wang Quan' an zuzendariaren filma izango da ikusgai ohiko ordutegietan. Filmak Txinako eskualde hartan bizi diren bizi baldintzak erakusten ditu; isilean, baina eraginkortasunez, hango egoera sozial eta politikoa uzten ditu agerian.



Regina Otaola eta Manuel Michelena PPren kideak atzo Donostian emandako prentsaurrekoan. HITZA

Regina Otaolak ez du dimisiorik aurkeztuko

Lizartza » 402 sinadura bildu zituen Lizartzako Herri Ekimena «ETAren aldekoa» dela esan zuen prentsaurrekoan.

ASIER IMAZ

Regina Otaolak (PP) prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Donostian (Gipuzkoa) Lizartzan herritarrek bildutako 402 sinaduren harira. «ETAren aldekoen estrategia porrot handi» bat izan zela esan zuen eta dimisiorik ez duela aurkeztuko azpimarratu zuen.

«Porrot handia»

Iragan larunbatean, Lizartzako Herri Ekimenak bozka eskubidea duten 402 herritarren sinadurak aurkeztu zituen, lizartzarren %80arenak hain zuzen ere, Regina Otaolaren «egoera antidemokratikoa» salatuz eta aldi berean eibartarraren dimisioa eskatuz.

Atzo Otaolaren erantzuna iritsi zen Donostiatik. Lehenik Lizartzako Herri Ekimenaren estrategia «porrot handia» izan dela aipatu zuen, Ekimenaren bultzatzaileei «ETAren aldekoak» direla

esanaz: «Hasieran kalean jarri zizuten mahaiak baina estrategia hau porrot handia izan zenez, atez ate hasi ziren sinadurak biltzen. Bi aste iraun behar zuen firma bilketak baina porrot handia izan zenez jarraitu egin zuten bizilagunak beldurtzen, eta hau ez dugu guk asmatu, bizilagunek aipatu digute. Abenduaren erdialdean, ETAren aldekoek herritarren izenekin zerrenda bat egin nahi zutela salatu, sinatzen zuten edo ez jarriaz. Orduan nabarmendu genuen ahal izango balute kartelxo bat edo pegatina bat jarriko luketee naziek judutarrekin egiten zuten bezala. Badirudi oraingo hau ez dutela egin, baina guztia gerta daitekeela dirudi».

«Eginbehar demokratikoak»

Bigarrenik, Regina Otaolak hitz eman zuen «euren eginbehar demokratikoetan» aurrera jarraituko zutela Alderdi eta Korporazio bezala Lizartzako udaletxean. Bere esanetan nazionalistek eta «ETAren aldekoek» inolako legitimitaterik ez dutelako. «EAJ korrika irten zen Lizartzatik eta hauteskundeetan ez ziren gai izan zerrendaririk aurkezteko, ondorioz,

orain guri dimisioa eskatzeko ez dute inongo sinesgarritasunik. ETAren aldekoak berriz legez kanpo utziak izan ziren».

«Ordezkaritzarik gabeak»

Regina Otaola Donostiatik lizartzarrei zuzendu zitzaizkien «lanean jarraituko» dutela esateko. «Guk orain artean bezala lanean jarraituko dugu, herritarrei askatasuna eta normaltasun demokratikoa itzultzeko».

Galdere bat ere luzatu nahi izan zuen prentsaurrekoaren amaieran PPren alternatiba gestora bat izango ote zen esanaz, «Ondarroman (Gipuzkoa) eta Elduainen bezala. Benetan pentsatzen al dute ETAren aldekoek, nazionalistekin batera, herritarrek garai hauetan eurekin jolasten uzteko prest daudela?».

Hauteskundeetan 27 bozka lortu zituen PPren zerrendaburuak, «ordezkaritzarik ez dutenen» inguruan ere hitz egin zuen; «hemendik ihes egin zutenek eta mehatxuen bidez ez duten ordezkartza lortu nahi dutenek, ez digute bizilagunen aldamenean herri honen betebeharrak kudeatzen jarraitzea galereziko».

Kanpoan ezin!



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Badira ia bost hilabete Ipuruatik kanpora partidarik irabazten ez dugula. Ez ditugu partida txarrak egiten, baina gauza batenatik edo besterengatik, azkenean emaitza aurkako izan ohi da.

Jardunaldi honetan Kataluniar joatea egokitu zitzaizgun. Egunkarietan eta telebistan aipatzen den lehortea nabaria zen, parajeak oso lehorrak ikus zitezkeen. Bidaian zehar horri buruz hitz egiten ari ginela, taldekide kanpotar batek esandako esaldiaz oroitzen naiz: «Zuek ez duzue bizi zaren lekua baloratzen, Euskal Herritik irretzen zaren arte. Zuen paisaia eta klimak, inbidia emateko modukoak dira». Tarragona ingurua eta haruntzako bidean ikusitakoak ikusi ondoren, ez zaio arrazoirik falta.

Aipatu legez, partida Tarragonan izan genuen Nastic-en aurka. Iaz Lehen Mailan zegoen taldea, aurrekontu indartsuena eta duena. Hala ere, puntan egon behar lukeen talde hau asko ari da sufritzen, jaitziera postuetan zegoen gure aurka jokatu zuenean, hiru hilabete zeramatzen partidarik irabazi gabe eta gu hara joan eta galdu. Defentsiboki egin genituen bi akatsek partida baldintzatu zuten eta erasoan gure ahaleginak antzua suertatu zirenez, ondorio bezala porrota izan genuen.

Egoera larria izan gabe, aste honetan garaipena lortzea oso garrantzitsua da. Garaipenak lasaitasun itzela emango liguke. Aurkari bezala, igoera postuetan dagoen Salva Ballesta «maitearen Malaga dugu. Honelako aurkariaren aurka motibazioa berezia izaten da, ea partida irabaziz lasaitasun hori lortzen dugun eta bide batez Realari motibazioa berezia izaten da, ea partida irabaziz lasaitasun hori lortzen dugun eta bide batez Realari motibazioa berezia izaten da, ea partida irabaziz lasaitasun hori lortzen dugun eta bide batez Realari motibazioa berezia izaten da, ea partida irabaziz lasaitasun hori lortzen dugun eta bide batez Realari motibazioa berezia izaten da».

H Hilberria

JUANITO UGARTE GURIDI

Zure tinkotasuna eta apaltasuna guretzat eredu. Egoera gogorrenetan ere beti hor. Mila esker eman eta erakutsi diguzun guztiagatik. Maite zaitugu Juanito.

Tolosako ezker abertzalea

TOLOSAN
2008ko otsailaren
20ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

II. Mikro-Ipuin Lehiaketako sariak banatuko dituzte gaur

Literatura » 13:00etan egingen dute sari-banaketa zinean eta Kirmen Uribe idazlea eta poeta ere bertan izanen da.

ERREDAKZIOA

Gaur EKE-Pamiela II. Mikro-Ipuin Lehiaketako sari-banaketa egingen dute Leitzako zineman, 13:00etan, Mikel Onsalo aresoarrak irabazi baitzuen lehiaketa. Mikel Onsalo Lezeak 13 urte ditu eta Leitzako Amazabal Institutuan ikasten du, DBHko 2. mailan. *Udazkena* izena du berak idatzitako ipuinak eta *Intze* izen goitiaz jarri zion bigarren urtez Euskara Kultur Elkargoak (EKE) eta Pamiela argitaletxeak antolatzen duten txapelketara bidali zuten ipuinari.

Ohorezko aipamen bereziak
Mikel Onsalok lortutako lehendabiziko sariaz gain, sariketaren epaimahaia osatzen duten lau adituek beste lau ohorezko aipamen berezi egin dituzte eta hauen artean Amazabal Institutuko beste bi ikasle daude, Patricia Vicente eta Judit Saizar.

Hauek dira ohorezko aipamena

lortu duten 4 ipuinak: *Txikiptuin*, Ulises Domets Villarrek idatzia (Iruñeako San Frantzisko ikastetxea, LH 6. maila, *Abarkak*, Patricia Vicentek idatzia (Leitzako Amazabal Institutua, DBH 2, *Non ote zegoen?*), Javier Armijok idatzia (Atarrabiako Paz Ziganda Ikastola, DBH 3) eta *Nire lilian* Judith Saizarrek idatzia, (Leitzako Amazabal Institutua, DBH3).

Kirmen Uribe sari-banaketan

Ekitaldia 13:00etan hasiko da, eta saridunek diploma eta liburu sorta bat jasoko dute, eta sari nagusia Kirmen Uribe idazle eta poetaren bisita izanen da.

Aurkezpenen eta agurren ondoren sariak banatuko dituzte. Egileek beraien ipuinak irakurriko dituzte, eta jarraian ikasle talde batek musika piezaren bat joko du. Ondoren iritsiko dasari-banaketa ekitaldiaren unerik garrantzitsuenetakoa, Kirmen Uribe idazle eta poeta errezitaldia egingen baitu. Beste musika pieza batekin amaituko dute sari-banaketa.

«Kalitatezko lanak»

II. Mikro-Ipuin Lehiaketaren epaimahaia 4 adituk osatu dute: Alberto Barandianen idazle eta ka-



Zinean egingen dute sari-banaketa, 13:00etan. N. GARZIA

zariari, Inma Errea idazle eta itzultzaileak, Joxe Migel Bidador idazle eta literatura irakasleak eta Migel Asiainek (azken hau erliteratura irakaslea da). Denek lanen kalitatea azpimarratu dute, «iaz baino handiagoa eta nabarmena asmo literarioetan eta egituretan». Honetaz gain, hizkuntza ere «ongi landu» dutela azaldu dute.

Bestalde, aurtengo II. edizio honetan izandako parte-hartze handia azpimarratu dute, 259 lan aurkeztu baitira, eta Nafarroa osoko ikastetxeetatik, eremu euskalduna, mistoa, baita eremu ez euskaldunetik, Irunberri, Tuter eta Zentronkotik, hain zuzen.

Aurkeztutako ipuin guztiak haitz laburrak izan beharra zuten, 100 hitzetik beherakoak, horregatik lehiaketa honi Makro-Ipuinen txapelketa deitzen zaio.

» IPUIN IRABAZLEA

■ **Udazkena.** Udazkeneko egun zoragarri bat zen. Gaztainondo zaharkitua, jada usteldua zegoen: soilik bi hosto zituen zintzilik, biak elkari begira. Eta goizeroko erretorika zen ea nor erori behar zen lehenik jakin nahi izatea, bizitzari lotu nahian. Haize bolada batek biak bota zituen kolpean, bizitzak dakien moduan.

«Zuhaitzaren ideia bat-batean etorri zitzaidan eta erraz idatzi nuen, ordu erdi batean»

UNAI ONSALO » Irabazlea

Literatura » Nafarroa osoko 359 lan aurkeztu zituzten lehiaketa honetara eta Mikel Onsalo aresoarrak irabazi zuen.

N. GARZIA

Mikel Onsalok (Leitza, 1994) II. Mikro-Ipuin Lehiaketa irabazi du *Udazkena* izeneko ipuinarekin, eta gaur zineman egingen den sari-banaketan irakurriko du. *Intze* goitiaz sinatu zuen, bere amaren Berastegiko baserriaren izena denez, horrela deitzen baitiote.

Irakasleak lehiaketa honetan parte hartzerantz animatu zintuzten, ez?

Nire gelan denek idatzi genuen, horri buruzko klase bat ematen ari gara eta bi taldeetan egin genuen. **'Udazkena' izena du zure lanak. Zer kontatzen duzu?**



N. GARZIA

Zuhaitz bati buruz hitz egin dut, heriotza islatzen du. Bi hosto ditu eta haize bolada batek bota eginen ditu. **Idea izatea asko kostatu al zitzai-zun?**

Zuhaitzaren ideia bat-batean etorri zitzaidan, eta erraz idatzi nuen, ordu erdi batean.

Jende askok parte hartu du. Irabaztea espero al zenuen?

Ez, ez nuen uste. Maistrak esan zi-

gun eta ezusteko handia hartu nuen. Azkenekotarikoa izanen zela uste nuen.

Leitzako beste bi neska ere aurkeztu dituzte.

Patricia Vicente nire gelakoa da, eta Judit Saizar beste batekoa.

Gaur da sari banaketa. Urduri al zaude?

Ez. Nire ipuina irakurri beharra dut eta atzo klasean entseguak egin genituen, patiotiko orduan aritu ginen maistrarekin.

Idaztea gustuko duzu edo sari hau irabaztea kasualitate izan da?

Ez, gustuko dut, baita irakurtzea ere, gehienbat liburu barregarriak. Tristeak, berriz, aspergarriak iruditzen zaizkit.

Pilotan ere aritzen zara, Aurrera Pilota Eskolan. Zer duzu gustukoen, idaztea edo pilota partidak jokatzea?

Pilota, dudarik gabe.

Huescako Pirinioetara irteera antolatu dute Mendibilek eta Aurrerak

Mendizaletasuna

» Etzi 18:00etan aterako dira herriko plazatik, larunbatean Pico de Lecherines mendia igotzeko.

ERREDAKZIOA

Mendibil Mendi Taldeak eta Aurrerak Huescako (Espainia) Pirinioetara irteera antolatu dute, 2.567 metro dituen Pico de Lecherines mendia igotzeko asmoz.

Ostiralean 18:00etan aterako dira eta larunbatean etortzeko ordua ere zehaztu dute, gutxi gorabehera 19:00 aldera itzuliko direla aurreikusita baitago.

Afaldu, lo eta gosaldu Aisako aterpetxean egingen dute. Bazkide ez direnek 29 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide direnek, aldiz, 15.

Izena emateko epea bihar amaitzen da, Astizen, Maimurren edo ondorengo helbide elektronikoan: mendibilaurrerak@hotmail.com. Pioleta eta kranpoiak eramatea ezinbestekoa da.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAJOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Villabona.** II. Kultur Astea Jesu-sen Bihotzan: hitzaldi tailerra emango du Maribel San Sebastianek, XXI. mendean hezi. Heziketa oinarri garrantzitsuak gazteleaz 15:15ean Gurea aretoan.

Deialdiak

■ **Amezketak.** Gizarte ongizate eta ingurumen batzordeak hainbat informazio emango ditu. Ur kudeaketa, jubilatuen egitaraua aukeratu, zaborren mankomunitatearen berri eman, artzain txabolen proiektua... 20:30ean, balioanitzeko gelan.

■ **Irura.** Kantuz Kantu Eraikitzen kantu afaria antolatu du Irurako Ikastolak otsailaren 23an 20:30ean Anoetako frontoian: ibilbidearen aurkezpena, afaria, kantu saioa eta Unsain anaiekin erromeria. Txartelak Anoetako Buztina, Itzuli eta Arkupe tabernetan eta Irurako ikastolan.

Irteerak

■ **Amezketak.** 1959an jaiotako amezketarrek Errioxako upategi batera joango dira martxoaren 1ean. Izen-ematea, 630 855500 telefonon (Joxe Mari Goikoe-txea).

■ **Zizurkil.** Irteera Iparraldera Emakumearen egunean: goizean Biarritzeko Txokolate Museoa eta bazkaria Baionako Trinketean. Izen-ematea, 28 eurotan, Aurrera plazako udal bulegoetan eta liburutegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Euskal Herriari buruzko lehen saioa

TOLOSA ● Historiaurrearen txanda izan zen herenegun, Lizardi kultur elkarteak Tolosan antolatu dituen Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroan. Joseba Asiron Artearen Historian lizentziatua eta Nafarroako Unibertsitatean irakasleak eman zuen hitzaldia, Kultur Etxea bete zuten

entzuleen aurrean. Datorren astelehenean (hilaren 25ean), berriz, euskararen historiari buruz Mikel Belasko hizkuntzalaria eta toponimian aditua ariko da, Kultur Etxean, 19:30etik aurrera. Guztira zortzi saioak osatuko dute mintegia. I.TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!

Eider.

Atzo 10 urte. Zorionak familiaren partetik.



Urte askoan!

Unai Bernal Mendizabal (Irura).

Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat.



Urte askoan!

Haritz Martin Kortajarena

(Zizurkil). Gaur 9 urte. Muxu asko futbolista, familiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta eskuratu

otsailak 23
larunbata, 20:30ean
Tolosako Leidorren

**Biarritz
Baleta Jr.**

